

## LANDAREEN MUNDUA: BARATZEA, LORATEGIA, FRUTARBOLAK, BASOA ETA BESTE, JAKOBA ERREKONDO

### Irakaslea:

Jakoba Errekondo, paisajista eta agronomoa.

Euskal Herrian pertsonen eta landareen arteko harremanean aditu eta erreferente handienetakoa da, eta komunikatzaile bikaina. Hainbat komunikabidetan parte hartzen du, landareen inguruan duen jakintza zabalduz.

25 urte daramatza Argia aldizkarian kolaboratzen, eta, astez aste, 1.000 artikulua baino gehiago idatzi ditu. 35 urte dira Euskadi Irratian landare kontsultategia hasi zuenetik. Hainbat liburu idatzi ditu: *Etxe barruko landareak*, *Euskal Herriko sagardoa*, *Bizi baratzea*, *Altza porru* eta *Landareak Lantzen* gida-liburua 2018-2019. 2016az geroztik, landareei eta, oro har, lurraekin zerikusia duen guztiari lotutako [www.bizibaratzea.eus](http://www.bizibaratzea.eus) web orria edukiz hornitzen du.



### Deskribapena eta helburuak:

Ikastaro honetan, landareei buruzko jakintza landuko dugu. Sarreran inguruan ditugun landareen bizimodua orokorrean nolakoa den aztertuko dugu. Gero baratzeaz, etxeko landareez, balkoikoez, lorategikoez, fruta arbolez eta basoko landareez ikasleek dituzten zalantzak eta galderak argituko dira. Beraz, ikastaroaren helburua ikasle bakoitzak dituen zalantzak argitzea izango da, bide batez ikasle guztiek landareez daukaten jakintzan sakonduz.

### Data-Ordua:

2022ko urriak 19, 26 eta azaroak 2: 18:30 – 20:00.

### Hizkuntza:

Euskara.